

B34

Lecu ona Bicuña...

Kopla honek kopla tradizionalen itxura du eta, aldi berean, herriei buruzko errefracak gogorarazten ditu, besteak beste Garibairen hauek: “Bilbao, an vere dongueac virao” (A32), “Villarreal de Urrechu, veti guerra darraiçu (A33)” eta “Bergara, ceñatu eta aygara (A34)”.

Eskuizkribua biltzen duen larruzko azalean idatzirik izateak erakusten du eransketa bat dela, baina, edozein kasutan ere Lazarragaren geografian sartzen da herria (Agurainetik sei kilometrora, Larreatik hamabostera) eta, letrakera ere, itxura batean, eskuizkribuko letrakera nagusiaren aldean desberdina izan arren, ez genuke baztertuko Lazarragak berak idatzia edo bildua izatea.

[1207r] Lecu ona Bicuña,¹
 soloan-soloan² muyña;³
 edoceynec gura leuque
 angoa bere suyña.⁴

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

2 soloan] *-n* lerroartean erantsi da. **3** leuque] *-eu-* zerbaiten gainean idatzi da (agian *-ei-*) eta *leuque*-ren ondoren letra bat dago tatxaturik (*-a* beharbada).

¹ *Bicuña*: Donemiliagako udalerriko kontzejuetako bat da Bikuña (Agurainetik 6 kilometrora, Larreatik 15 kilometrora, ekialdera).

² *soloan-soloan*: ‘soro guztietan’; denbora adierazten duten izenekin ohikoa da (ikusi Zarauzko Bulda, Larramendi, Añibarro... batez ere mendebaldeko testuetan) errepikapena erabiltzea (*egunean egunean, astean astean, urtean urtean...*) ohikotasuna adierazteko (‘egunero’, ‘egun guztietan’; ‘astero’, ‘aste guztietan’; ‘urtero’, ‘urte guztietan’). Hemengoa egitura hori berori da, baina lekua adierazteko.

³ *muyña*: ‘funtsa, aberastasuna’; adiera ez da zehazten erraza, baina hemen esan nahi du Bikuñako soroak emankorrak direla.

⁴ *suyña*: ‘suhia’; Landuccik, ordea, “yerno, *suya*” dakar, sudurkaririk gabe.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B34 – Lecu ona Bicuña...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago